

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maite Vallejo Arriaga

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Errosario kaleko
`Vallejonekua´ etxean jaioa.
Aita, sestaoarra, hiru
urterekin etorri zen
Elgoibarrera; ama
elgoibartarra zen. Lau anai-
arreatatik gazteena. Aitak
forjan lan egiten zuen eta
amak Peñalba abarketa-
lantegirako abarketak josten
zituen etxean. Satur
maistrarekin ibili zen Eskola
Txikian eta gero eskola
nazionalen. 14 urterekin
ikasketak bukatu ostean,
maistrei laguntzen ibili zen,
ordezkapenak eginez. [Miren](#)
ahizparekin batera egin
zioten elkarrizketa Arrieta
anaiek, Elgoibarko hainbat
kontu jasotzeko. Kantu eta
jolasak jasotzeko
elkarrizketan ere parte hartu
zuen ahizparekin batera.

Zintak

EGB-094

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2016-04-11
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

EGB-127

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrieta Soraiz, Ion - Arrieta Soraiz, Pello
- **Data:** 2013-01-01
- **Iraupena:** 87 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Arrieta Soraiz, Ion

Pasarteak

1. "A banderas" eta "obaluetan" jolasak

- **Erref:** EGB-094/014
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:10:08. **Bukatu:** 00:12:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

"A banderas" jolasa nola zen azaltzen du Maitek. Eskolan egiten zuten jolas hori, jolastorduan. Zapiaren jokoa da: batek zapia heltzen zuen. "Obaluetan" jolasa ere aipatzen du, "en óvalos": zirkuluak marrazten zituzten lurrean, eta batetik beste egiten zuten salto.

2. "San Juan portaletaña" II

- **Erref:** EGB-094/070
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 01:08:20. **Bukatu:** 01:09:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

San Juan kantua: "San Juan portaletaña" kantatzen dute Maitek eta Mirenek.

3. "Urte berri, berri" eske-kanta III

- **Erref:** EGB-094/072
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 01:09:26. **Bukatu:** 01:09:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

"Urte berri, berri" kantatzen dute Mirenek eta Maitek.

4. Maitek asmatutako kantuak

- **Erref:** EGB-094/074
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:09:56. **Bukatu:** 01:11:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Berak asmatutako kantu bat kantatzen hasten da Maite, baina ez du osorik gogoratzen. Lau kantu ditu, berak asmatuak. Lehiaketa ere irabazi zuten parrokiako jaialdi batean.

5. Aita Sestaon jaioa; ama elgoibartarra

- **Erref:** EGB-127/002
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:00:53. **Bukatu:** 00:02:03

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Demetrio; amari Kruzita `Vallejo´ esaten zieten denek, hau da, senarraren abizena erabilita. Aita Sestaon jaioa zen, baina gerora jakin zuten hiru urterekin etorri zela Elgoibarrera; ama, berriz, Elgoibarren jaioa.

6. Aitaren jatorria

- **Erref:** EGB-127/004
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:03:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitaren aita Palentziakoa zen, Herrera de Pisuega herrikoa. Sei seme-alaba izan zituen eta haiek hazi zirenean ganadu-tratulari gisa etorri zen. Sestaora joan ziren. `Porru´reneko Mikaelarekin ezkondu zen. Beraiek ere `Porru´tarrak izan arren, Vallejo abizenez izendatu izan ditu jendeak.

7. Anaia biriketako gaitzarekin hil zen gazterik

- **Erref:** EGB-127/009
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:06:48. **Bukatu:** 00:08:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Bost anai-arreba izan ziren. Lehenengoa ez zuten ezagutu. Orain Miren da zaharrena. Anaia, Imanol, 18 urterekin gaixotu eta 26rekin hil zen, urtebeteko bizia eman zioten arren. Biriketako gaitza zuen. Ama enplasto bidez zaintzen saiatzen zen; belarrak batzen ibiltzen ziren. Penizilina eta estreptomizina urte hartantxe atera ziren Ameriketara.

8. Aitona eta ama Peñalba abarketa-lantegian lanean

- **Erref:** EGB-127/017
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:15:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitona Frantziskok Peñalba abarketa lantegian lan egin zuen. Lantegi hori

aurretik Pedro Arrietarena (euren aitonarena) izan zela azaltzen dute elkarriketatzailleek. Miren eta Maiteren amak ere abarketak josten zituen Peñalbaretzat eta aitonari ez zitzaion batere gustatzen, berriak zelako. Azkenean, kasualitatez, bere seme batekin ezkondu zen.

9. Eskola txikian Satur maistrarekin

- **Erref:** EGB-127/019
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:15:14. **Bukatu:** 00:17:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Saturina Ciaran maistrarekin ibili ziren eskola txikian. Euskaraz egiten zuen dena. Ume asko egoten ziren batera. Maitek dio euskaraz egin arren gaztelaniaz ikasten zutela. Oraindik gogoratu egiten da zer ikasten zuten. Orduko argazki bat baduela ere azaltzen du.

10. Eskola nazionaleko zuzendariarekin harremana

- **Erref:** EGB-127/021
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:18:36. **Bukatu:** 00:23:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola nazionalean hiru gela zeuden Maiteren sasoian. Ez du gogoan lehenengo gelako maistraren izena; bigarrenekoa, Pakita Zinkunegi, abertzalea zen; hirugarrenekoa, Palmira, espainolista zen. Hura zen zuzendaria. Maitei enkarguak egiteko eskatu zion eta hilean bi pezeta ematen zizkion trukean. Falangeko bat etortzen zitzaion eskolara, ariketa fisikoa eginaraztera. Maitek zuzendariari esan zion ez zuela klase horietara joan nahi, bere aitari ez litzaiokeelako gustatuko, eta baimena eman zion ez joateko.

11. 14 urterekin eskola amaitu eta maistrei laguntzen

- **Erref:** EGB-127/022
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:25:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Maitek 14 urterekin amaitu zuen eskola. Consuelo maistra etorri zen orduan.

Oso arduratsua zenez, ikastaroetara maistra moduan joateko eskatzen zioten. Umetatik izan zen arduratsua; plazan ez zuen dantza egin nahi izaten, zapatei azpia ez gastatzearren eta gasturik ez sortzearren, anaia gaixoa zaintzeko dirua behar zuten eta. Maistra gisa egon zeneko pasadizoak.

12. Maistrei laguntzen ibili zen sasoian ezagutu zuen senargaia

- **Erref:** EGB-127/023
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:25:27. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

14 urterekin eskola nazionaleko maistrak ordezkatzeko zituen Maitek. Jolas-orduan Plaza Txikira irteten ziren eta han ezagutu zuen Tomas, bere senarra izango zena. Maisua zen; Balentin Arrieta maisuari laguntzen zion. 21 urte zituen orduan, zazpi urte nagusiagoa zen. Dore Urbistondo maistra eibartarrak mutil ona zela esan zion. Maitek 15 urte bete zituenean, galtzerdi luzeak oparitu zizkion.

13. Senargaia nola deklaratu zitzaion

- **Erref:** EGB-127/026
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:30:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Dore Urbistondo maistraren ama hil zenean, Eibarrera joan ziren hiletara. Tomas maisua era joan zen eta elkarrekin itzuli ziren trenean. Elgoibarrera iritsi zirenean, ea berarekin zerbait izan nahi zuen galdetu zion Tomasek eta korrika alde egin zuen. Oso mutil ona zen, bizimodu latza izandakoa.

14. Gaitzizenen inguruko pasadizoa

- **Erref:** EGB-127/029
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:31:33. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Hiru elgoibartar elkarrekin etorri ziren trenean Donostiatik. Euren gaitzizenekin sortutako txistea.

15. Iluntzeetan tabernara lagunartera

- **Erref:** EGB-127/031
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:35:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Miren `Txitxarroneko´ etxera ezkondu zen. Etxea eta lantegia. Baratzea zuten eta oiloak ere bai. Patxiko Juaristi eta Cesar Latxa "Artes y oficios" lantegiko maisuak izan ziren. Iluntzeetan tabernarako ohitura. Barrutiarenean elkartzen ziren. Euren aita "takillua"rekin joaten zen. Kafea izetarenean. Nolakoa zen. Han inguruan deklaratu zitzaion Pako Mireni.

16. Palentziako akitaren jarrera eredugarria

- **Erref:** EGB-127/040
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:47:27. **Bukatu:** 00:48:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Euren aita, Demetrio oso-oso abertzalea zen. Aitita Palentziatik etorria zen, baina, bere semearekin ezkondu zenean, errainari esan zion umeei euskaraz egiteko, berak ulertu ez arren. Garbi zeukan bera zela kanpotik etorritakoa eta berak ohitu behar zuela bertako hizkuntzara eta ohituretara.

17. Etxetik jasotako abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna

- **Erref:** EGB-127/051
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:10:53. **Bukatu:** 01:13:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Oso euskaltzaleak izan dira. Aitak "euskaldun" eta "abertzale" kontzeptuei buruz ematen zizkien azalpenak. Eskolan gaztelaniaz, baina bestela euskaraz egiten zuten beti. Amak ez zien erantzuten euskaraz egin ezean. Aita garbizalea zen, gainera, euskararekin.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com